

NAZIOARTEKO EBALUAZIOAK  
ETA IKASLEEN IRAKURMENA HOBETZEA



NAZIOARTEKO EBALUAZIOAK  
ETA IKASLEEN IRAKURMENA HOBETZEA

Titulua:  
Nazioarteko ebaluazioak eta ikasleen irakurmena hobetzea

Egilea  
Luis Iza Dorronsoro

© NAFARROAKO GOBERNUA  
Hezkuntza Departamentua

Diseinua eta maketazioa: ANA COBO  
Moldiztegia:—  
Lege Gordailua:—

# Aurkibidea

<b>Sarrera</b> .....	7
<b>1. Funtsezko gaitasunak</b> .....	9
<b>2. Irakurmena</b> .....	11
<b>3. Irakurketa ebaluaziorako nazioarteko proiektuetan</b> .....	13
3.1 PIRLS: marko teorikoa .....	13
3.1.1 PIRLS: irakurketaren definizioa.....	14
3.1.2 PIRLS: irakurketa ebaluatzeko alderdiak .....	14
3.1.3 PIRLSen aplikatutako galderen ereduak.....	15
3.2 PISA: marko teorikoa .....	16
3.2.1 PISA: irakurketaren definizioa .....	16
3.2.2 Irakurketaren dimentsioak PISA ebaluazioan .....	16
3.2.3 Irakurketa mailak PISAn.....	18
3.2.4 PISAn aplikatutako proba ereduak.....	20
3.3 PIRLSen eta PISAREN ekarpenak .....	20
<b>4. Nazioarteko ebaluazioak eta ikasleen irakurmena hobetzea</b> .....	23
4.1 Nazioarteko ebaluazioen mugak eta ekarpenak .....	23
4.2 Errendimenduarekin lotutako faktoreak irakurketan .....	24
4.3 Errendimendu hobeko hezkuntza sistemen praktika onak irakurketan .	25
4.4 Jarduera proposamenak.....	26
4.4.1 Kontuan izan beharreko dimentsioen gainean .....	26
4.4.2 Irakurketa planaren markoa .....	28
<b>5. Ondorioak</b> .....	31
Taula eta grafikoaren aurkibidea.....	33
Bibliografia aipamenak .....	35



# Sarrera

Kalitatezko hezkuntza orok beharrezko jakintza eta estrategiak eman behar ditu testuinguru jakin batean. Jakintzaren gizartean gaur egun gaitasunak garatuko direla bermatu behar du.

Carlos Monereo Fontek eta Juan Ignacio Pozo Municioek koordinatutako lana *Cuadernos de Pedagogia* aldizkariko 298. alean argitaratu zen 2001eko urtarrilean. Lan hori jarraituz, ondoko ezaugarri hauek definitzen dute gaur egungo testuingurua: (in)formazioaren iraungipena, informazio osoa barne hartu ezina eta informazioaren ziurtasunik eza, jakintza informazioaz ordezkatzeko arriskua, irakatsitako jakintzen erlatibotasuna, hezkuntza eskarien heterogeneotasuna eta aisialdirako hezkuntza. Testuinguru honek nabarmentzen du bizitza osoan zehar egin beharreko ikaskuntza garrantzitsua dela, eta jakintza eta trebetasun guztiak ez direla hein berean iraunkor edo galkor. Bestalde, beharrezko gaitasunetako batzuetan aldaketa sakonak izaten dira, bereziki aurrerapen teknologikoengatik eta eskakizun berriengatik.

Hezkuntza sistemak saiatzen ari dira erronka berri hauei erantzuten. Horretarako, helburuak zehazten dituzte eta helburu horiek lortzeko planak ezartzen dituzte. Hezkuntza sistemen arduretako bat da ikasleek jakintzaren gizartean funtsezko gaitasunak lortzea. Gaitasun horietako bat irakurketa da. Espainiako hezkuntza sistemak azkeneko urteotan onetsitako lege-xedapenetan azpimarratu du irakurketaren garrantzia, eta ikastetxeek eta irakasle guztiak duten erantzukizuna ikasleek funtsezko gaitasun horren ahalik eta garapen-mailarik altuena erdiets dezaten. Azken urteotan irakurketaren inguruan sortutako dinamika hau ez da soilik gure hezkuntza sistemarena. Aitzitik, irakurmena nazioartean lehentasunezko helburua da Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan. Beraz, ezbairik ez dago ikasleen irakurmena nazioarteko hezkuntza sistemen lehentasunezko helburua dela eta gure hezkuntza sistema dinamika horretatik kanpo ez dagoela.

Nazioarteko ebaluazioek funtsezko zenbait gaitasun zikloka ebaluatu beharra dagoela proposatu dute eta irakurketari arreta berezia egin diote. Ildo honetan, PIRLS Irakurmenean aurrera egiteko nazioarteko azterlana (Progress in International Reading Literacy Study) eta PISA Ikasleen nazioarteko ebaluaziorako programa (Programme for International Student Assessment) irakurketa ebaluatzeko funtsezko bi erreferente bihurtu dira hezkuntza sistemen Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bukaeran.

Lan honen xedea da ebaluaziorako nazioarteko proiektuek irakurketa hobetzeko planei zer ekarpen egiten dieten aztertzea. Horretarako, gaur egungo testuinguruan behar diren funtsezko gaitasunen gainean hausnarketa egin ondoren, irakurketaren marko teorikoak PIRLS eta PISA nazioarteko ebaluazioetan aurkeztuko dira eta errendimendu hobeko hezkuntza sistema batzuetan irakurketa eskolan lantzeko osagai komunak berri emanen da.





# 1. Funtsezko gaitasunak

Gaur egungo hezkuntza sistemek jakintzaren gizartean proposatutako erronka berriei erantzun nahi diete. Horretarako, helburuak proposatu eta neurriak hartzen dituzte, eta helburuen lorpen-maila frogatzeko kalitate adierazleak zehazten dituzte. Europar Batasunak 2000-2010 hamarkadarako hiru helburu estrategiko finkatu dituzte (hezkuntza sistema europarren lehentasunezko helburua izan daitezen). Helburu horietako lehenarekin Europar Batasuneko hezkuntza eta prestakuntza sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetu nahi dira. Bigarrenarekin, denek hezkuntza eta prestakuntza sistemetan sartzeko aukera izatea bermatu nahi da. Eta, hirugarrenarekin, hezkuntza eta prestakuntza sistemak denen eskura jarri nahi dira. Lehentasunezko hiru helburu horiek berariazko hamahiru helburutan zehaztu dira. Horietako batekin jakintzaren gizarterako beharrezkoak diren gaitasunak garatu nahi dira. Europar Kontseilua Bartzelonan bildu zen 2002an eta bertan lan programa bat onartu zuen helburu komun horiek 2010erako lortzeko. Lantalde bat eratu zen funtsezko gaitasunak zehazteko. Ahalegin horretan ere ari dira beste foro batzuetan, besteak beste: OCDEn, Gaitasunen Zehaztapenarekin eta Hautaketarekin (DeSeCo), Asia-Europa bilerako ASEM ekimenarekin edo Eurydicerekin.

“Hezkuntza eta prestakuntza 2010” izeneko lan programaren barnean lan egiten duen funtsezko gaitasunen gaineko lantaldeak *“Bizitzan zehar ikasteko funtsezko gaitasunak. Erreferentzia marko europarra”* dokumentua prestatu du. Lantaldeak proposatutako helburuak hauek dira: gaitasunak identifikatu eta zehaztea, gaitasun horiek curriculumean txertatzeko modurik onena ezartzea, bizitzan zehar mantentzea eta garatzea, eta gaitasun horien menderatze-maila zehaztea.

Funtsezko gaitasunetarako markoak printzipio hauek hartzen ditu kontuan: gaitasun horiek norberak eta gizartean erabiltzeko eta lanerako baliozkoak izatea, gaitasunaren kontzeptua testuinguruaren mendeko jakintzen, trebetasunen eta jarreraren konbinazio modura hartzea, gaitasunaren barruko osagai nahitaezko eta ezinbestekoak kontuan hartzea –menderatze-maila oinarritzeko batetik maila aurreratu baterako garapena kontuan hartzea– eta gaitasun horien menderatze-maila neurtzea.

Hauxe da gaitasunaren definizioa: “jakintza, trebetasun eta jarrera multzo multifuntzional eta besterengarria da, norbanako guztiek eurenak, gizartean erabiltzeko edo lanerako behar dituztenak. Gaitasunek nahitaezko hezkuntzaren bukaerarako garaturik egon beharko lukete eta bizitzan zehar ikasiko den horretarako oinarria izan beharko lukete.”

Funtsezko gaitasunen jabetzak honako hauek dira:

1. Ama hizkuntzan komunikatzea
2. Atzerriko hizkuntza batean komunikatzea
3. Matematika gaitasuna, eta zientziako eta teknologiako oinarrizko gaitasunak
4. Gaitasun digitala
5. Ikasten ikastea
6. Pertsonen arteko gaitasunak eta gaitasun zibikoak
7. Izaera lehiatsua
8. Kultura adierazpena

Funtsezko gaitasunen proiektu honek nola gorago aipatutakoek irakurketa oinarrizko tresna modura garrantzitsua dela nabarmentzen dute.


## 2. Irakurmena

Irakurmena ezinbesteko tresna da eskola ikaskuntzan. Zenbait arrazoik ontzat ematen dute baieztapen hori. Lehenik, arlo eta irakasgaien jakintzak hizkuntzaren eta irudien inguruan biltzen dira nagusiki. Bigarrenik, jakintza horietako zati handia testu idatzietatik lortzen da. Eta, hirugarrenik, irakurketan antzemandako desberdintasunak hein handi batean ikasleen etorkizuneko hezkuntza garapenaren iragarle dira. Horretaz gainera, baiezta dezakegu hizkuntza idatziaren garapenak eta curriculumeko arrakastak elkarren arteko mendekotasuna dutela: idatzian maila ona izanez gero, curriculumean arrakasta lortuko da eta, aldi berean, zaila izanen da irakurmen-maila handia eskuratzea ez bada curriculumean behar bezala aurrera egiten.

Ikaskuntzan nahitaezko tresna izan da beti irakurmena. Informazioaren eta jakintzaren gizartean are garrantzitsuagoa bihurtu da, zeinetan ikaskuntza bizitza osoan zehar halabeharrez ezarri baita. Ikus-entzunezkoaren kultura gailendu dela behin eta berriz adierazi arren, jakintzaren gizarteak testu idatziaren rola indartu du, kultura horren oinarria aldatu bada ere eta etorkizunean aldaketa handiak izanen baditu ere.

Irakurmenean (“reading literacy”) askotariko jakintzak eta trebetasunak sartzen dira. Irakurketarekin prozesu kognitibo eta metakognitibo asko abian jartzen dira. Kodea azkar samar ikasten bada ere, geroago prozesu asoziatibo motela behar da, nahita eta sistematikoki praktikara eraman behar dena. Didaktikaren ikusmoldetik, laguntza handikoa da Marian Sainsburyk sortutako irakurketa eredua. Marian Ingalaterrako Hezkuntza Ikerketarako Fundazio Nazionalekoa da (National Foundation for Educational Research). Eredua hori 1. grafikoan irudikatu da.

## 1. GRAFIKOA. MARIAN SAINSBURYK EZARRITAKO IRAKURKETA EREDUA



Iturria: SAINSBURY, M. (2004): "National and International Assessment of Literacy Skills". A paper presented at the European Summer School. Paris, March 31 2004.

Lehen mailan deskodetzea dugu: fonetika jakin behar da, ikusizko memoria behar da eta analogiak erabili behar dira (horrek ez dakar berarekin testuari esanahi bat nahitaez eman behar izatea). Bigarren mailan, ulermena dugu: irakurritakoari esanahia ematen zaio eta deskodetzeari jakintza lexiko eta gramatikala gehitzen zaizkio. Irakurketaren kontzeptu elkarreragile batetik abiatutik, hirugarren mailan irakurleak erantzun bat eman behar dio eskuratutako informazioari (horretarako nahitaezkoa da testua helburu edo asmo jakin batekin irakurria izatea).

Ikusmolde elkarreragile hori ageri zaigu gaur egun aplikatzen ari diren nazioarteko ebaluazioetan. Ikuspegi horretatik abiatutik, beraz, irakurketak garrantzi berezia hartu du irakurmenaren irakaskuntzan eta ebaluazioan.

### 3. Irakurketa ebaluaziorako nazioarteko proiektuetan

1959an eratu zen *IEA* Hezkuntza errendimendua ebaluatzeko nazioarteko elkarte (International Association for the Evaluation of the Educational Achievement IEA - Asociación Internacional para la Evaluación del Rendimiento Educativo). Matematikaren, zientzien eta irakurketaren esparruan nazioarteko ebaluazio sakonak egin ditu. Irakurketari dagokionez, irakurmenaren gaineko azterlana (RLS) egin zuen 1991n 9-10 urte bitarteko haurrekin.

1990ean OCDEk INES proiektua sustatu zuen (hezkuntzako nazioarteko adierazleen produkzioaz arduratzen da). Proiektu horren emaitzak aldian-aldian argitaratzen dira izenburu honekin: *Education at a Glance/Regards sur l'éducation*. Ikasleen hezkuntza errendimenduaren gaineko adierazleak sartzeko xedez, 1997an beste proiektu bat onartu zen (PISA azterlana), 2000an estreinakoz aplikatu zena.

1995etik aurrera nazioarteko ebaluazioak zikloka egiten dira. Gaur egun, irakurketaren esparruan nazioarteko bi ebaluazio proiektu abian daude: OCDEk sustatua, PISA proiektuaren arlo modura, eta IEAk sustatutakoa, PIRLS modura ezagutzen dena.

#### 3.1. PIRLS: marko teorikoa

PIRLS Irakurmenean aurrera egiteko nazioarteko azterlanaren ingelesezko akronimoa da (**P**rogress in **I**nternational **R**eadin**L**iteracy **S**tudy - Progreso en el Estudio Internacional sobre la Competencia Lectora). 9-10 urte bitarteko ikasleei (gure hezkuntza sistemako Lehen Hezkuntzako 4. mailan daudenei) irakurketaren gainean egiten zaien ebaluazio estandarizatua da.

Ebaluazio hori egin baino lehenago *Irakurketaren gaineko Azterlana* egin zen 1991n. PIRLS zikloka egiten da. Lehen aldiz 2001ean egin zen eta 2006an aplikatuko da berriro ere. Handik aurrera, bost urtean behin. PIRLS 2001ean aplikatu zen 35 herrialdetan. Emaitzak askotarikoak izan ziren: irakurketaren gaineko emaitza orokorrak, irakurketaren helburuen gainekoak (irakurketa irakurtzeko esperientzia modura eta ikasteko irakurtzea) eta ulertzeko prozesuen inguruko emaitzak.

Aukera anitzeko galderak eta erantzun eraikiko galderak egin ziren. Nazioarteko beste ebaluazio batzuetan egindakoaren ildotik, laginketa matriziala erabili zen eta emaitzak errendimendu eskala jarraietan eman ziren (500 puntuko batez bestekoa eta 100 puntuko desbideratze tipikoa).

PIRLSek marko teoriko bat eskaintzen du, Lehen Hezkuntzako ikasleen ebaluazioari aplikatzeko. Erabilgarria ere izan daiteke hezkuntza etapa honetan funtsezko gaitasun hau ikasteko. PIRLSen marko teorikoa eta PISArena desberdinak badira ere, bateragarriak dira.

### **3.1.1. PIRLS: irakurketaren definizioa**

Halaxe definitzen da irakurketa PIRLSen: “gizarteak eskatutako edota norbanakoak balioetsitako hizkuntza idatziko formak ulertzeko eta erabiltzeko trebetasuna da. Irakurle gazteek askotariko testuetatik esanahia atera dezakete. Irakurtzen dute ikasteko, irakurle elkarteetan parte hartzeko eta norberaren denbora-pasarako”. Beraz, PIRLSek ikasteko eta gozamenek irakurtzeko egindako irakurketa azpimarratzen du eta irakurketaren ikuspegi elkarreragilea proposatzen du, non irakurketaren helburua eta irakurritakoaren aurrean irakurleak ematen duen erantzuna garrantzitsuak gertatzen diren.

### **3.1.2. PIRLS: irakurketa ebaluatzeko alderdiak**

Irakurketako hiru alderdi aztertzen ditu: irakurketaren helburuak, ulermen prozesuak, eta irakurketarekiko portaerak eta jarrerak. Lehen biak probak prestatzeko erabiltzen dira eta hirugarrena, berriz, galde-sortak egiteko.

#### **■ Irakurketaren helburuak**

Ebaluaturiko ikasleen adina kontuan hartu ondoren, PIRLSek irakurketan bi helburu proposatu ditu (bi helburu horiek ehunekotan emaniko garrantzi bera dute): irakurketa, esperientzia literario modura eta irakurketa, informazioa eskuratu eta erabiltzeko. Irakurketa helburu horiek maiz testu mota bati baino gehiagori lotzen zaizkio (hala izanik ere, ezin da elkartzeko zehatz batez hitz egin, edozein testu gorago aipatutako bi helburu horietarako balio baitezake). Ebaluazio honetan garrantzi handiagoa ematen zaie fikziozko narrazio testuei (irakurketa esperientzia literario modura hartzen duen helburuari dagokionez) eta azalpen testuei (informazioa eskuratu eta erabiltzeko irakurketari loturik). Nolanahi ere, beste testu mota batzuk ere lantzen dira, formatu etenekoak ere barne direla.

#### **■ Irakurketa prozesuak**

PIRLSek lau irakurketa prozesu garrantzitsu zehazten ditu: testu batetik berariazko eta ageriko informazioa ateratzea (probaren % 20ko balioa); testu baten inferentzia errazak egitea (%30); ideiak eta informazioa interpretatzea eta txertatzea (%30) eta testu bateko edukia, hizkuntza eta testu-elementuak aztertzea eta ebaluatzea (%20). 1. taulan zenbait irakurketa ataza aurkeztu da (ataza horiek lau irakurketa prozesu horien ereduak dira).

**1. TAULA. IRAKURKETA PROZESUAK ETA IRAKURKETA ATAZAK PIRLSEN**

IRAKURKETA PROZESUAK	ATAZA EREDUAK
<b>Testu batetik berariazko eta ageriko informazioa ateratzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketaren berariazko helburua lortzeko garrantzitsua den informazioa identifikatzea.</li> <li>• Berariazko ideiak bilatzea.</li> <li>• Hitzen edo esaldien definizioak bilatzea.</li> <li>• Historia bateko denbora edo lekua identifikatzea.</li> <li>• Testu bateko ideia nagusia aurkitzea, agerikoa bada.</li> </ul>
<b>Inferentzia errazak egitea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egintza bat beste baten ondorio dela adieraztea.</li> <li>• Ideia nagusia zein den adieraztea, aurretik arrazoitu ondoren.</li> <li>• Izenordain baten erreferentzia zehaztea.</li> <li>• Testuan orokortzeak identifikatzea.</li> <li>• Bi pertsonaien arteko erlazioa deskribatzea.</li> </ul>
<b>Ideiak eta informazioa interpretatzea eta txertatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuko mezu orokorraren edo gaiaren artean bereizketa egitea.</li> <li>• Pertsonaien ekintzak ez diren beste aukera batzuk kontuan izatea.</li> <li>• Testuko informazioa erkatzea eta egiaztatzea.</li> <li>• Historia baten giroa edo tonua ondorioztatzea.</li> <li>• Testuko informazioaren benetako aplikazio bat interpretatzea.</li> </ul>
<b>Edukia, hizkuntza eta testu-elementuak aztertzea eta ebaluatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Deskribatutako gertaerak benetan gertatzeko aukera ebaluatzea.</li> <li>• Egileak harridurazko bukaera nola prestatzen duen deskribatzea.</li> <li>• Testuko informazioa osoa eta argia den uste izatea.</li> <li>• Gai nagusiaren inguruan egileak duen ikuspegia zehaztea.</li> </ul>

Iturria: MULLIS, IVS; KENNEDY, AM; MARTIN, M.O. & SAINSBURY, M. (2004): *PIRLS 2006. Assessment Framework and specifications. Progress in International Reading Literacy Study*. Chesnut Hill, MA: Boston College.

**■ Irakurketarekiko portaera eta jarrerak**

Uste da irakurketarekiko portaera eta jarrerak irakurmenaren zati garrantzitsua direla eta ez zaiola soilik testuak ulertzeko trebetasunari mugatzen. Horregatik, ikasleei, gurasoei, irakasleei eta zuzendariei egindako galde-sortetan alderdi hau ebaluatzen da.

**3.1.3. PIRLSen aplikatutako galderen ereduak**

Nazioarteko ebaluazioetan zenbait ariketa gordetzen dira joeren ikerketak egin ahal izateko, hau da, denboran zehar emaitzen eboluzioa aztertzearen. Beste item batzuk ere ezagutzera eman dira eta, PIRLSi dagokionez, Hezkuntza Departamentuaren web orrialdean begira daiteke: <http://www.pnte.cfnavarra.es>

## 3.2. PISA: marko teorikoa

PISA Ikasleen nazioarteko ebaluaziorako programaren ingelesezko akronimoa da (“**P**rogramme for **I**nternational **S**tudent **A**ssessment - Programa para la evaluación internacional de los alumnos/as”). 15 urteko ikasleei hiru arloetan (irakurketan, matematikan eta zientzietan) aplikaturiko ebaluazio estandarizatua da.

Aipatutako hiru arlo horietan zikloka (hiru urtean behin) aplikatzen da. Hori hala bada ere, arlo horietako bat bederatzi urtean behin gailentzen da: 2000. urtean lehentasunezko arloa irakurketa izan zen; 2003an matematika; 2006an zientziak izanen dira eta 2009an berriro irakurketaren txanda izanen da. Eta halaxe, hurrenez hurren.

Ebaluazio horretan aukera anitzeko galderak erabiltzen dira eta beste galdera batzuetan ikasleek erantzuna eman behar dute. Ebaluazioaren baliozkotasuna bermatzeko edo beharrezko jakintzak eta trebetasunak hartzeko, laginketa matriziala egiten da. Emaitzak errendimendu-eskala jarraietan ematen dira, Itemari erantzuteko Teoriaren (TRI) arabera.

Lau ezaugarri garrantzitsu dira PISA ebaluazioaren oinarri: erabakiak hartzeko tresna baliozkoa izateko bideratua izatea, “literacy” kontzeptu berria, bizitzan zeharreko ikaskuntzari aipamena egitea eta zikloka egitea.

### 3.2.1. PISA: irakurketaren definizioa

Hau da “irakurketa”ren definizioa PISAn: curriculumaren zehar-trebetasuna da, elkarrengile, “ikasteko irakurri” kontzeptuari erantzuten diona “irakurtzen ikasi” kontzeptuari baino gehiago. Horretaz gainera, “testu idatziak ulertzea eta erabiltzea eta testu horietatik abiatuak hausnarketa pertsonala egitea da, norberak bere jomugetara iristeko, bere jakintzak eta ahalmenak garatzeko eta gizartean parte hartzeko”. Definizio honek ondorio garrantzitsuak izanen ditu ebaluazioaren diseinuan.

### 3.2.2. Irakurketaren dimentsioak PISA ebaluazioan

Irakurketak dimentsio asko ditu. Horietako hiru PISAren ebaluazioak eraikitzeke erabiltzen dira: testu mota desberdinak, galderen ezaugarriak eta, egilearen asmoari dagokionez, irakurketa zein egoeratan gertatzen den.

#### ■ Testuak

PISA ebaluazioak askotariko testuak erabiltzen du. Ikastetxeetan eta gizartean erabiltzen diren testu horiek jarraiak eta etenak dira. Testu jarraien artean honako hauek ditugu: deskribapen testuak, narrazio testuak, azalpen testuak, argudio testuak, testu hezigarriak eta hipertestua [hipertestutzat hartzen dira elkarren artean erlazionatutako testuak (testu horietako unitateak zenbait hurrenkeratan irakur daitezke)]. Testu etenen artean honako hauek ditugu: inprimakiak edo formularioak, oharrak eta iragarkiak, koadroak eta grafikoak, diagramak, taulak eta matrizeak eta mapak. Nazioarteko ebaluazio honen ezaugarrietako bat da testu mota bat baino gehiago erabiltzen direla, nahiz eta testu bakoitzari emandako garrantzia desberdina den. 2000an aplikatutako ebaluazioan testuen garrantzia (ehunekotan emana) 2. taulan ageri dena da.



**2. TAULA: TESTUEN GARRANTZIA (EHUNEKOTAN EMANA) PISA 2000AN.**


<b>Testu jarraiak</b> % 68	• Deskribapena ..... % 9
	• Narrazioa ..... % 15
	• Azalpena ..... % 24
	• Argudioa ..... % 13
	• Heziketa..... % 7
<b>Testu etenak</b> % 32	• Formularioak ..... % 3
	• Iragarkiak ..... % 1
	• Diagramak eta grafikoak..... % 12
	• Eskemak ..... % 4
	• Taulak ..... % 9
	• Mapak ..... % 3

Azken finean, ikasleek ikastetxean aurkitzen dituen eta helduaroan aurkituko dituen askotariko testuak eta irakurgaiak lantzen dira.

**■ Galderen ezaugarriak**

Eskatutako irakurketa prozesuek eta galdera motek definitzen dituzte galderen ezaugarriak garrantzitsuenak.

Bost **irakurketa prozesu** proposatzen ditu (horietan askotariko irakurketa jarduerak taldeka daitezke). Atazak ere bat baino gehiago izan daitezke: testuaren informazioa nagusiki erabiltzea, testuaren kanpokoak ezagutzea beharrezkoa izatea, testuko zati jakin batzuk edo testu bateko erlazioak erabiltzea edo testuaren edukian edo egituran zentratzea. 2. grafikoan ageri dira bost irakurketa prozesuak.

**2. GRAFIKOA. TESTU BAT ULERTZEKO ALDERDIAK PISA EBALUAZIOAN**

Iturria: OECD (2003): *The PISA 2003 Assessment Framework. Mathematics, Reading, Science and Problem Solving Knowledge and Skills*. Paris: OECD.

Bost irakurketa prozesu horiek hiru azpieskaletan taldekatzen dira (halaxe ageri da 3. taulan). Halaber, 2000an egindako ebaluazioan azpieskaletan duten garrantzia (ehunekotan emana) ere ageri da (kontuan izan urte horretan irakurketa lehentasunezko arloa izan zela).

### 3. TAULA. IRAKURKETA PROZESUAK ETA EMAITZAK AURKEZTEKO AZPIESKALAK

IRAKURKETA PROZESUA	AZPIESKALA	GARRANTZIA EHUNEKOTAN EMANA
Informazioa bilatzea edo berreskuratzea	Informazioa berreskuratzea	% 29
Ulermen osoa	Interpretazioa	% 49
Interpretazio bat garatzea		
Testuaren edukiaren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa	Hausnarketa	% 22
Testuaren formaren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa		

**Galdera motei** dagokienez, ikasleei aukera anitzeko galderak eta zenbait testuren inguruko erantzun eraikiko galderak egiten zaizkie.

#### ■ Irakurketa egoerak

Irakurketaren helburuak egilearen asmoaren eta irakurlearen xedearen arabera aldatzen dira. PISAk bere egiten du 1996an Europar Kontseiluak egindako azterlana. Azterlan horretan bereizten dira: irakurtzea norberarendako, irakurtzea jendearendako, irakurtzea lanerako eta irakurtzea hezkuntzan erabiltzeko.

#### 3.2.3. Irakurketa mailak PISAn

Aipatutako hiru dimentsio horiez gainera, PISAk bost irakurketa maila ezarri ditu, horietako bakoitzari lotutako zailtasunaren arabera. Maila horiek askotarikoak dira: ez hain irakurketa ataza konplexuetatik (1. maila) irakurketa ataza zailagoetara (5. maila). 1. mailatik behera bagaude esan nahi du PISAn neurtutako jakintza eta gaitasun oinarritzkoetan zailtasunak daudela. 4. taulan laburbiltzen dira irakurketa mailekin lotutako atazen ezaugarriak.

## 4. TAULA. IRAKURKETA MAILEKIN LOTUTAKO ATAZAK

MAILA	INFORMAZIOA LORTZEA	TESTUAK INTERPRETATZEA	HAUSNARKETA ETA BALIOESPENA
5	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuan sakon txertatutako informazio elementu asko aurkitzea eta sekuentziatzea edo konbinatzea (elementu horietako batzuk testuaren zati nagusitik kanpo egon daitezke).</li> <li>- Atazarako testuko zer informazio den aipagarria ondorioztatzea.</li> <li>- Tarteka daitekeen informazioa (oso onargarria edota osagarria) erabiltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntzaren ñabarduren esanahia eraikitzea edo testua osorik eta xehetasun osoz ulertu dela frogatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kritikoki balioestea edo hipotesiak egitea jakintza espezializatuan oinarriturik.</li> <li>- Espero ez diren kontzeptuak erabiltzea, eta testu luze eta konplexuak sakon ulertzea.</li> </ul>
4	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuan txertatutako informazio elementu asko aurkitzea eta sekuentziatzea edo konbinatzea (elementu horietako batzuk askotariko irizpideei erantzun diezaiekete), testuingurudun testu batean edo oso ohikoa ez den formatuan.</li> <li>- Atazarako testuko zer informazio den aipagarria ondorioztatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuan oinarritutako maila altuko inferentziak erabiltzea ohikoa ez den testuinguruan kategoriak ulertzeko eta aplikatzeko eta testu baten zatiaren esanahia eraikitzeko (testua bere osotasunean hartuko da kontuan).</li> <li>- Anbigutasunak, espero ez diren ideiak eta modu negatiboan adierazitako ideiak erabiltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuaren gaineko hipotesiak formulatzeko jakintza formala edo publikoa erabiltzea edo hura kritikoki balioestea.</li> <li>- Testu luzeak eta konplexuak zehazki ulertzea.</li> </ul>
3	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio elementuen arteko erlazioak aurkitzea eta, kasu batzuetan, ezagutzea (askotariko irizpideei erantzun diezaiekete).</li> <li>- Tarteka daitekeen informazio garrantzitsua erabiltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testu bateko zenbait zati txertatzea testu horretako ideia nagusia identifikatzeko, hitzen arteko erlazioak ulertzeko edo hitz edo esaldi baten erlazioak ulertzeko edo esanahia eraikitzeko.</li> <li>- Konparatzea, egiaztatzea edo kategorizatzea irizpide asko kontuan hartuz.</li> <li>- Tarteka daitekeen informazioa erabiltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testu bateko loturak edo konparazioak ezartzea, azalpenak ematea edo ezaugarri bat balioestea.</li> <li>- Testua xeheki ulertu dela frogatzea (ohiko eta eguneroko jakintzari dagokionez) edo hain ohikoa ez den jakintzan oinarritzea.</li> </ul>
2	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio elementu bat edo gehiago aurkitzea (horietako bakoitzak askotariko irizpideei erantzun diezaieke).</li> <li>- Tarteka daitekeen informazioa erabiltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testu bateko ideia nagusia identifikatzea, erlazioak ulertzea, kategoria soilak osatzea edo aplikatzea, edo testuaren zati mugatu baten esanahia eraikitzea (informazioa ez da garrantzitsua eta maila baxuko inferentziak behar dira horretarako).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuaren eta kanpoko jakintzaren arteko konparazioa edo loturak ezartzea edo testuaren ezaugarri bat azaltzea norberak bizitako esperientzietan edo jarreretan oinarriturik.</li> </ul>
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ageriko informazio elementu bat edo gehiago aurkitzea irizpide bakar bat erabiliz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eguneroko gai bati buruzko testu batean gai nagusia edo egilearen asmoa zein den ezagutzea, eskatutako informazioa testuan garrantzitsua denean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuko informazioaren eta jakintza komun eta ohikoaren arteko lotura soila ezartzea.</li> </ul>

Iturria: OECD (2001): *Knowledge and Skills for Life. First Results from the OECD Programme for International Student Assessment (PISA) 2000*. Paris: OECD.

Ikus daitekeenez, atazen zailtasuna irakurketa mailaren araberakoa da. Zailtasunak askotariko ezaugarriekin du zerikusia. Esate baterako, hauekin: testuaren luzera, edukiaren erraztasuna edo konplexutasuna, edukia ezaguna egitea, laguntza grafikoak edo ikusizko laguntzak, testuan informazioa nola dagoen antolatuta, testuaren formatua, testuan aurkitu edo erabili beharreko elementuen kopurua, eskatzen den informazioarekin tartekatzen diren informazioak izatea, zer irakurketa prozesu eskatzen den, eskatutako ulermen maila eta atazaren agerikotasun-maila.

### 3.2.4. PISAn aplikatutako proba ereduak

Ikasleei aditzera emandako galderak (PISA ebaluazioan proposatutakoen arteko batzuk dira) hurrengo helbidean lor daitezke: <http://www.ince.mec.es/pub/index.htm>. *PISA 2000: proposatutako galderak - Irakurketa, Matematika eta Zientziak* epigrafeko Ebaluaziorako Nazioarteko Azterlanak atalean daude.

Argitaratutako eruedetan honako hau sartzen da: testuak, egindako galderak eta galdera bakoitzari dagokion informazioa. Hauxe:

- zein azpieskalatakoa den (informazioa berreskuratzea, interpretatzea edo hausnarketa egitea)
- erantzun zuzena, galderak aukera anitzekoak badira
- galderaren zailtasunik handiena PISA eskalan
- ikasle espainiarrek asmatutako galderen ehunekoa
- OCDEko herrialdeetako ikasleek asmatutako galderen ehunekoa
- kalifikazio irizpideak eta, erantzun eraikiko galderei dagokienez, ikasleek emandako erantzunen ereduak

Egin diren galdera eredu hauek PISA ebaluaziora gehiago hurbiltzeko baliagarriak dira. Horretaz gainera, irakasleek erabil ditzakete ikasleak ebaluatzeko eta beste ikasle batzuek lortutako emaitzekin erkatzeko, ikasle espainiarrekin eta OCDEko herrialdeetakoekin, alegia.

## 3.3. PIRLSen eta PISAren ekarpenak

PIRLSek eta PISAk marko teoriko desberdinak dituzte, ebaluazioen helburuak desberdinak direlako eta adin desberdinetako ikasleei aplikatzen zaizkielako. Hala ere, bi ebaluazioek zenbait elementu erabiltzen dute, hezkuntzako lanari orientabideak emateko.

PISAk proposatutako markoa erreferentzia modura harturik, ekarpen horiek honako hauen inguruan deskriba daitezke: irakurketaren definizioa, erabilitako testu motak, eskatutako irakurketa prozesuak, irakurketa egoerak eta galdera motak.

### ■ Irakurketaren definizioa

Aipatutako bi ebaluazioen oinarria hau da: irakurketa curriculumaren zeharkako trebetasuna da eta bere izaera elkarreragilea da.

### ■ Testu motak

Aipatutako bi ebaluazioetan esaten da ikasleek gai izan behar dutela testu mota asko irakurtzeko. Hori hala izanik ere, PIRLSen narrazio eta azalpen testuek probetan garrantzi handiagoa dute (garrantzia ehunekotan ematen da). PISA ebaluazioan, probetan gehien agertzen diren testuak honako hauek dira: narrazio testuak, azalpen testuak, argudio testuak eta deskribapen testuak. Testu etenen artean, berriz, diagramak, grafikoak eta taulak.

### ■ Irakurketa prozesuak

Eskatutako ulermen motak antzekoak dira bi proiektuetan (ikus 5. taula).

#### 5. TAULA. ULERMEN PROZESUAK

PISA (15 urte)	PIRLS (LH 4)
Informazioa bilatzea edo berreskuratzea	Testuan agerian dagoen informazioa ateratzea
Ulermen osoa	Inferentzia errazak egitea
Interpretazio bat garatzea	Ideiak eta informazioa interpretatzea eta txertatzea
Testuaren edukiaren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa	Edukia, hizkuntza eta testuko elementuak aztertzea eta ebaluatzea
Testuaren formaren gaineko hausnarketa eta ebaluazioa	

### ■ Irakurketa egoerak

Probak ezartzen zaizkien ikasleei adinari erreparatuz gero, PIRLSen helburuak PISArenak baino mugatuagoak dira (6. taula).

#### 6. TAULA. IRAKURKETA HELBURUAK / EGOERAK

PISA (15 urte)	PIRLS (LH 4)
Irakurtzea norberarendako	Irakurtzea esperientzia literario modura
Irakurtzea jendaurrean erabiltzeko	
Irakurtzea lanean erabiltzeko	
Irakurtzea hezkuntzan erabiltzeko	Irakurtzea ikasteko

### ■ Galdera motak

Irakurketaren izaera elkarreragilearekin koherente izanik, bi kasuetan ez dira soilik aukera anitzeko galderak proposatzen, ikasleek erantzuna eman beharreko beste galdera batzuk ere egiten dira.



## 4. Nazioarteko ebaluazioak eta ikasleen irakurmena hobetzea

Atal honetan agertuko dira nazioarteko ebaluazioen ekarpenak eta irakurketan emaitza hobeak lortzen dituzten hezkuntza sistemen praktika onetako ezaugarri batzuk. Azkenik, irakurtzen ikasteko zenbait aplikazioen berri emanen da.

### 4.1. Nazioarteko ebaluazioen mugak eta ekarpenak

Nazioarteko ebaluazioak kanpo ebaluazioak dira eta hezkuntzako eta kulturako zenbait testuingurutan ezartzen dira. Hori dela-eta, mugak badituzte eta horien artean azpimarratzekoak honako hauek: ebaluatutako arloen balizko ikuspegi mugatuagoa (barne ebaluazioetako ikuspegia baino murriztagoa); emaitzak alda ditzateken alde kulturalak; itzulpenarekin zerikusia duten zailtasunak (zuzenketa bermatzeko neurriak arreta handiz hartzen badira ere); eta maiz kostu handiak eta emaitzak lortzeko behar den denbora luzea. Nazioartean gaur egun egiten diren ebaluazioek ahalegin handiak egiten dituzte muga horiek gutxiagotzeko eta muga horiek emaitzetan izan ditzaketen ondorioak gutxiagotzeko.

Mugak badira ere, nabarmendu behar dira nazioarteko ebaluazioek hezkuntza sistemen hobekuntzari egindako ekarpenak. Lehenik, funtsezko gaitasunei estu loturiko helburuen definizioan dagoen adostasun zabal eta kultura anitzekoa dira; globalizazioaren testuinguruan ahalegina balioetsi behar da irakurketa moduko arloetan helburuak zehazterakoan. Bigarrenik, ebaluazio horiek ikasleen jakintzen eta trebetasunen gaineko informazioa ematen digute: dakitena eta ezezagun zaiena (hobekuntzako edozein plan diseinatzerakoan nahitaezko abiaburua). Hirugarrenik, herrialde parte-hartzaileen emaitzak erkatzeko balio dute. Laugarrenik, joeren azterketa errazten dute, hots, emaitzen eboluzioa denboran zehar (horrek hezkuntza sistemen gaineko funtsezko informazioa eman diezaguke). Bosgarrenik, hezkuntza sistemak hobetzera bideratutako ekarpenik zorrotzena da errendimendurekin lotutako faktoreen gaineko datuak ematen dizkigutela. Eta azkenik, errendimendu hobeko hezkuntza sistemen hezkuntza praktika onen ezagutza bultzatzen dute.

## 4.2. Errendimenduarekin lotutako faktoreak irakurketan

Errendimenduan parte hartzen dute faktoreak aztertzen baditugu, ondorio hau atera dezakegu: faktore horietako bat ez da emaitza hobeen arduradun bakarra, faktoreak konbinatuz gero puntu-kopuru hobeak ateratzen baitira. Faktore horiek 7. taulakoak dira.

### 7. TAULA. ERRENDIMENDUAREKIN LOTUTAKO FAKTOREAK IRAKURKETAN

<b>Aldagai sozio-familiarrak</b>	Ikastetxe bateko ikasleen osaketa sozioekonomikoa.
	Gurasoen hezkuntza maila.
<b>Eskola aldagaiak</b>	Emaitzei begira egindako lana.
	Eskolako giroa.
	Irakaslana.
	Eskolako baliabideak erabiltzea.
<b>Ikasleen gaineko aldagaiak</b>	Ikaskuntza prozesuaren autoerregulazioa.
	Irakurtzeko zaletasuna.
	Ikasleen generoa.

Aipatu den bezala, faktore bakar bat ere ez da goragoko edo beheragoko errendimendu baten erantzule. Esan da ikastetxe bateko ikasleen osaketa sozioekonomikoa eta gurasoen hezkuntza maila garrantzitsuak direla eta errendimenduaren parte direla. Hori hala izanik ere, horrek ez du esan nahi arazoak dituzten familietako ikasle guztiek errendimendu txikiagoak izanen dituztela. Aitzitik, aldagai batzuek (irakaslanak edo irakurtzeko zaletasunak) beste aldagai batzuen kontrako ondorioa konpentsa dezakete.

Ikastetxeek eskola aldagaietan eragina izan dezakete (emaitzetara bideratzea, eskolako giroa, irakaslana eta eskolako baliabideak erabiltzea). Baita har dezakete parte ere, hein batean bada ere, ikasleen ikaskuntza prozesuaren autoerregulazioan eta irakurtzeko zaletasunean, betiere esparru horretan ikasleen errendimendua hobetzarren.



### 4.3. Errendimendu hobeko hezkuntza sistemen praktika onak irakurketan

Nazioarteko ebaluazioetan herrialde batzuetako (Kanada, Australia, Erresuma Batua edo Irlanda) hezkuntza sistemek errendimendu ona lortu dute irakurketan. Horiek denek irakurtzen ikasteko prozesua planifikatzeko eta garatzeko moduan zenbait ezaugarri komun partekatzen dituzte, elementu desberdintzaileak badituzte ere. Denetan badira programak, Lehen Hezkuntzan hasi eta Bigarren Hezkuntzaraino hedatzen direnak. Oro har, irakurketa eta idazketa curriculumeko arlo guztietan sartzen dituzte eta hein handi batean PISA ebaluazioan proposatutako irakurketa-marko teorikoa partekatzen dute (irakurketa prozesuekin zerikusia duten jarduerak, askotariko testu motak eta irakurketa helburuak).

Curriculumeko helburu zehatzekin eta errendimendu adierazleekin egituraturiko eta sistematizatutako programak dira (horien barnean sartzen dira espero izandako ikaskuntzen deskribapena eta mailaz maila ikasleek egindako lanak). Kanpo ebaluaziotik ateratako datuak erabiltzen dituzte haien eraginkortasuna frogatzeko eta kanpo ebaluazioarekin koherentea den barne ebaluazioa aplikatzen dute. Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo jarduerak planifikatzen dituzte. Jarduera horiek hiru ardatz bereizi baina koordinaturen inguruan antolatzen dira: irakurketa eta idazketa eskolako hizkuntzekin bat egiten duten arloetan; irakurketa eta idazketa curriculumaren zeharreko gaitasun modura eta irakurtzeko zailtasunak izan ditzaketen ikasleendako berariazko laguntzak. Ikasgelatik kanpoko jarduerari dagokienez, familiaren eta komunitatearen inplikazioak garrantzi berezia du.

Deskribatutakoa 8. taulan ageri da eskema modura.

#### 8. TAULA. IRAKURKETAREN IRAKASKUNTZAREN BEREIZGARRI KOMUNAK

<b>ESPARRUA</b>	Irakurketa eta idazketa.
	Irakurriaren ulermena curriculumeko arlo guztietan.
<b>MARKOA</b>	Irakurketa prozesuak.
	Askotariko testuak.
	Irakurtzeko egoerak edo helburuak.
<b>SISTEMATIZAZIOA</b>	Curriculum helburu zehatzak.
	Adierazleak: espero izandako ikaskuntzen deskribapena eta mailaz maila ikasleek egindako lanen ereduak.
<b>DIMENSIONES</b>	Ikasgela barnean: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakurketa eta idazketa eskolako hizkuntzetan.</li> <li>- Irakurketa eta idazketa gainerako arloetan.</li> <li>- Zailtasunak dituzten ikasleei laguntzea.</li> </ul>
	Ikasgelatik kanpo: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Familiaren eta komunitatearen inplikazioa.</li> </ul>
<b>EBALUAZIOA</b>	Barnekoa eta kanpokoak: ikasle guztiak ebaluatzea adierazleen arabera.

Gure hezkuntza sistema ikuspegi hau hartzen ari da (ikasleen irakurmena lantzeak lehenetasuna du gurean).

## 4.4. Jarduera proposamenak

### 4.4.1. Kontuan izan beharreko dimentsioen gainean

Irakurketaren nazioarteko ebaluazioen marko teorikoek eta beste herrialde batzuen hezkuntza praktikek zenbait elementu jartzen dizkigute eskura ikastetxeetan irakurtzen nola irakatsi behar den planifikatzerako orduan.

#### ■ Testu motak

Helburua da ikasleek ohikotasunez ikastetxean eta gizartean aurkitzen eta erabiltzen dituzten testuak irakurmena garatzea. Testu jarraien artean, nabarmendu beharrekoak dira narrazio eta azalpen testuak, Lehen Hezkuntzan eta, testu horietaz gainera, argudio eta deskribapen testuak, Bigarren Hezkuntzan. Testu etenen artean, berriz, diagramei, grafikoei eta taulei erreparatu behar zaie. Hori hala izanik ere, ez da ahaztu behar testu errealak ez direla soilik kategoria bakarrean sartzen, besteren gainetik gailendu beharreko irizpidea beste hau baita: ikasleei askotariko testuak ematen zaizkiola bermatzea.

#### ■ Irakurketa prozesuak

Irakurmenaren konplexutasun handia gorabehera, ikuspuntu didaktiko batetik abiatuz, kontuan izan beharko lirateke irakurmena bermatzeko irakurketa prozesuak. Horren erakusgarri zenbait jarduera edo ataza, irakurketa prozesu horiei dagokienez ikasleekin landu daitezkeenak (9. taula).

## 9. TAULA. IRAKURKETA ATAZEN EREDUAK

PROZESUA	DEFINIZIOA	ESTRATEGIAK	EREDUAK
<b>Berriazko informazioa bilatzea</b>	<i>Testuan berean ageriko edo ondorioztatutako informazioa aurkitzea.</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioa aurkitzea.</li> <li>• Informazio hori ulertzea.</li> <li>• Informazio aipagarria hautatzea.</li> </ul> <p><b>Maila:</b> perpausa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berriazko ideiak aurkitzea.</li> <li>- Kontakizun batean denbora edo lekua identifikatzea.</li> <li>- Aurretik emandako informazio baten parekoa aurkitzea.</li> </ul>
<b>Testua bere osotasunean ulertzea</b>	<i>Osotasunean hartutako testu batetik funtsezkoena ateratzea.</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ideien arteko hierarkia ezartzea.</li> <li>• Ideia nagusia edo gaia zehaztea.</li> <li>• Testu bateko asmo edo erabilera orokorra identifikatzea</li> </ul> <p><b>Maila:</b> testua edo testuaren zatia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuaren zentzua hobekien biltzen duen perpausa hautatzea.</li> <li>- Jarraibideen hurrenkera azaltzea.</li> <li>- Grafiko edo taula bateko dimentsio nagusiak identifikatzea.</li> <li>- Izenburu bat hautatzea edo sortzea.</li> <li>- Ideia nagusia ondorioztatzea.</li> <li>- Literatura testu bateko gaia edo mezua identifikatzea.</li> <li>- Historia bateko giroa edo tonoa ondorioztatzea.</li> <li>- Testuaren asmo orokorra identifikatzea.</li> <li>- Historia bateko pertsonaia nagusia, tokia edo giroa deskribatzea.</li> <li>- Mapa edo koadro baten, Interneteko orrialde nagusi baten... helburua edo erabilera azaltzea.</li> <li>- Mezu baten hartzaileak identifikatzea.</li> <li>- Emandako testua zein liburu motatan egon daitekeen aurkitzea.</li> <li>- Testuaren laburpena egitea.</li> </ul>

PROZESUA	DEFINIZIOA	ESTRATEGIAK	EREDUAK
<b>Interpretazio bat garatzea</b>	<i>Testua logikoki ulertzea, testuaren barnean toki kohesioaren eta kohesio osoaren arteko elkarreragina kontuan harturik.</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioa erkatzea eta egiaztatzea.</li> <li>• Ondorioak ateratzea.</li> <li>• Laguntza probak identifikatzea.</li> </ul> <p><b>Maila:</b> testua edo testuaren zatia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bi pertsonaien arteko erlazioa deskribatzea.</li> <li>- Sekuentziak ordenatzea.</li> <li>- Pertsonaien, argudioen eta tokien arteko erlazioa azaltzea.</li> <li>- Izenordain baten erreferentea zehaztea.</li> <li>- Gertatu behar duena iragartzea eta iragarpen horiek berrikustea edo berrestea.</li> <li>- Pertsonaien ekintzen alternatibak kontuan hartzea.</li> <li>- Bi egintzen arteko kausalitate erlazioa identifikatzea.</li> <li>- Ondorioarekin batera ekarritako proben zerrenda egitea.</li> <li>- Erlazio edo kategoria bat ondorioztatzea.</li> <li>- Egilearen asmoa zein den suposatzeko erabilitako probak identifikatzea.</li> <li>- Pertsonaia jakin baten arrazoia edo asmoa identifikatzea.</li> <li>- Esanahia ondorioztatzea testuingurutik abiaturik.</li> <li>- Testuan orokortzeak identifikatzea.</li> <li>- Testuaren informazioaren benetako aplikazio bat interpretatzea.</li> </ul>
<b>Testuaren edukiaren gaineko hausnarketa egitea</b>	<i>Testuko baieztapenak ebaluatzea testuaz kanpotik dugun jakintzarekin egiaztatuta.</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Edukia kritikoki kontuan hartzea.</li> <li>• Aurkeztutako errealitatearen aurrean norberak bere aukerak agertzea.</li> </ul> <p><b>Maila:</b> testua.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Deskribatutako egintzak benetan gertatzeko aukerak balioestea.</li> <li>- Benetako egintzen eta fantasiako egintzen artean bereiztea.</li> <li>- Egileak gaiaren gainean duen jarrera balioestea.</li> <li>- Testuko informazioa osoa eta argia denetz iritzia ematea.</li> <li>- Informazio zatien garrantzia ebaluatzea.</li> <li>- Egileak ekarritako probak balioestea.</li> <li>- Testuaz kanpoko probak edo argudioak ekartzea.</li> <li>- Edukia elkarbizitza, etika, estetika... arauekin erkatzea.</li> </ul>
<b>Testuaren formaren gaineko hausnarketa egitea</b>	<i>Hizkuntza eta testu-elementuak ebaluatzea.</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuaren zenbait ezaugarriren eragina ebaluatzea.</li> <li>• Testupeko ezaugarriak aurkitzea.</li> </ul> <p><b>Maila:</b> testua.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errepikatutako hitzen gaineko hausnarketa egitea.</li> <li>- Zenbait adjektibo ordezkatzeko eta emaitza balioestea.</li> <li>- Testuaren egituraren gaineko galderak.</li> <li>- Testuaren estiloaren eta erregistroaren gaineko galderak.</li> <li>- Helburu bat lortzeko unean uneko testu-bereizgarrien erabilera ebaluatzea.</li> </ul>

#### ■ Irakurketa egoerak

Askotarikoak izaten dira irakurketa helburuak eta helburu horiek irakurleen interesen, beharren eta egoeren arabera dira. Irakurri ikasteko eta gozamenaz irakurtzeko helburuei lehentasuna eman behar zaie Lehen Hezkuntzan eta irakurketa egoerak hedatu behar dira Bigarren Hezkuntzan.

#### 4.4.2. Irakurketa planaren markoa

Irakurketa plan batek funtsean bi helburu ditu: irakurtzeko oinarriko estrategiak bermatzea eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzea. Horretarako, irakurketarekiko jariakortasunarekin, ulermenarekin eta elkarreraginarekin eta motibazioarekin lotutako gaitasunak garatu beharko dira.

Irakurketa planak –erantzukizuna bera ez bada ere, arlo guztiak ukitzen ditu– formatu bat baino gehiago izan ditzake. Nolanahi ere, 10. taulan bildutako elementuak izan beharko lituzke, gutxienez.

### 10. TAULA. IRAKURKETA PLANAREN OSAGAIK

<b>Irakurmena sistematikoki garatzea</b>	Eskolako hizkuntzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jakintza fonetiko-fonologikoa.</li> <li>• Hiztegia.</li> <li>• Ortografia.</li> <li>• Perpausak egitea eta puntuazioa.</li> <li>• Paragrafoak egitea eta kohesioa.</li> <li>• Estilo konbentzioak.</li> <li>• Zenbait testu mota ulertzea.</li> <li>• Literatura testuak aztertzea.</li> </ul>	<b>E S T R A T E G I A K</b>
	Gainerako arloak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arloaren funtsezko hiztegia.</li> <li>• Definizioak egitea eta azalpenak ematea.</li> <li>• Arloari berezkoak zaizkion estilo konbentzioak.</li> <li>• Arloko testu motarik esanguratsuenak.</li> <li>• Baliabideak erabiltzea: hiztegiak, entziklopediak, liburutegia eta euskarri elektronikoan dauden materialak.</li> </ul>	
	Errendimendu baxuko ikasleei laguntzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zailtasunak gazte-gaztetandik nola identifikatu.</li> <li>• Esku-hartze goiztiarra.</li> </ul>	
<b>Irakurketa bultzatzea</b>	Ikasgelan		
	Ikastetxean		
	Ikastetxetik kanpora		

Irakurketa planean bilduko dira ikastetxearentzat aipagarriak diren jarduerak. Berriro ere eta adibide modura, erregistraturik gera daitezke 11. taulako formatuan. Ziklo batean edo kurtso jakin batean eginen diren jarduerak behar bezala planifikatuta beharko dute izan (12. taula).

**11. TAULA. IKASTETXEKO IRAKURKETA PLANA. JARDUERAK**

			0 ZIKLOA 1. KURTSOA	0 ZIKLOA 2. KURTSOA	0 ZIKLOA 3. KURTSOA	...
<b>IRAKURKETAREN GARAPEN SISTEMATIKOA</b>	ESKOLAKO HIZKUNTZAK	1H				
		2H				
		3H				
	GAINERAKO ARLOAK EDO IRAKASGAIAK	1. ARLOA				
		2. ARLOA				
		3. ARLOA				
		...				
LAGUNTZA						
<b>IRAKURKETA BULTZATZEA</b>	IKASGELAN IKASTETXEAN IKASTETXETIK KANPO					

**12. TAULA. JARDUERAK PLANIFIKATZEA ZIKLOKA EDO KURTSOKA**

ZIKLOA EDO KURTSOA: \_\_\_\_\_

HELBURUA	JARDUERA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	PROZEDURAK ESTRATEGIAK	NOIZ	EBALUAZIOA

Garrantzitsua da irakasleek irakurketan erabiliko dituen estrategia komunak zehaztea. Ondotik, argibide soil modura-edo, zenbait estrategia ezarri da (hiztegia eta definizioak lantzerakoan eta azalpen testuak erabiltzerakoan onar daitezke).

**■ Hiztegiari dagokionez:**

- Nabarmendutako hitzak ikastea
- Hitz baten esanahia testuinguruaren arabera aurkitzea
- Erroak, aurrizkiak eta atzizkiak ezagutzea
- Hitz konposatuak aztertzea
- Sinonimoak eta antonimoak
- Familia lexikoak eta eremu semantikoak
- Erabilera teknikoak eta eguneroko erabilera bereiztea
- Erdaradak eta neologismoak identifikatzea

**■ Definizioei dagokienez:**

- Termino orokorra identifikatzea
- Berariazko ezaugarriak kategorizatzea

- Arloetan edo irakasgaietan azalpen testua erabiltzeari dagokionez, alderdi hauek har daitezke kontuan:

- Testuaren helburua edo funtzioa:

- Irakurketaren egoera
- Egilearen asmoa

- Testuaren egitura:

- Testuaren zatiak aztertzea: sarrera, garapena eta ondorioa.
- Ideiak lotzeko irizpideak aurkitzea: denbora sekuentzia, espazio sekuentzia, arazo/soluzioa, abantailak/desabantailak, zergatia/ondorioa, galdera/erantzuna, sailkapen irizpideak...

- Hizkuntza ezaugarrien artean, testu-ezaugarriak azpimarratu behar dira:

- Tituluari eta azpitituluei erreparatzea
- Aldaketa tipografikoen funtzioa ulertzea...
- Testu-lokailu logikoak

- Ulermen estrategiak:

- Paragrafo bakoitzeko lehen perpausa aztertzea, irakurketa azkarraren teknika modura ("skim")
- Irakurtzea, adi eta sakon ("scan")
- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak identifikatzea
- Egilearen eta testuan aipatzen diren beste pertsona batzuen iritzia bereiztea
- ...

## 5. Ondorioak

Orain arte azaldutakotik, ondorio hauek atera daitezke:

- a)** Geure aurrean gizarte eta hezkuntza testuinguru berria dugu eta horrek funtsezko gaitasunak berriro definitu beharra ekarri digu. Gaur egungo hezkuntza sistemak erronka berriei erantzuten ahelegintzen ari dira. Horretarako, helburuak proposatzeaz gainera, neurriak hartzen dituzte eta helburuak zenbateraino lortu diren frogatzeko kalitate adierazleak definitzen dituzte. Arreta berezia jartzen zaie ikasleek matematikatan, irakurketan, zientzietan, informazioren eta komunikazioaren teknologietan eta atzerriko hizkuntzetan lortu duten mailari. Jakintzaren gizartean beharrezkoak diren hezkuntza gaitasunak garatzeko oinarrizko arloak dira horiexek.
- b)** Gaur egungo hezkuntza sistemen helburu komunen artean lehentasuna du ikasleen irakurmenaren garapenak. Europar Batasunari dagokionez, ikasleek irakurketan lortutako maila 2000. urtean onetsitako kalitate-adierazleetako bat da.
- c)** Nazioarteko ebaluazioek gaitasun horietako batzuen ebaluazioa zikloka egitea proposatu dute. Izaera ziklikoa da hezkuntza sistemek errendimendu adierazleak aldian-aldian behar dituztelako.
- d)** Mugak badituzte ere, nazioarteko ebaluazioek hezkuntza sistemei ekarpen handia egin diete eta helburuak zehazterakoan adostasun zabal eta multikulturala ekarri dute, ikasleen jakintzen eta trebetasunen gaineko informazioa eman dute, ebaluazioan parte hartzen duten herrialdeetako ikasleek lortutako emaitzak erkatzea posible egin dute, joeren azterketa egiten lagundu dute, errendimenduari lotutako faktoreen gaineko datuak eskaini dituzte eta errendimendu hobeko hezkuntza sistemen praktika onak ezagutzea bultzatu dute. Hori hala izanik ere, ez lirateke onartu behar kritikarik egin gabeko ikusmolde ekonomizistegjak.
- e)** PISA irakurketa ebaluatzeko nazioarteko tresna bihurtu da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bukaeratik hurbileko adinetan. Era berean, PISAren marko teorikoa funtsezko erreferentea da gaur egungo hezkuntza sistemetan irakurmena hobetzeko egintzak planifikatzeko. Jakitera emandako proben ereduak erabil daitezke erudian sakontzeko eta irakasleak ebaluazio tresna modura erabiltzeko.

- f)** PIRLSek 9-10 urte bitarteko haurren irakurketa maila ebaluatzen du eta PISAk ekarritako datuak osatzeko balio du.
- g)** Gaur egungo hezkuntza sistemek irakurmena hobetzeko planak bultzatzen dituzte. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan aplikatzen diren plan horietan programa zehatz eta sistematizatuak, eta barne eta kanpo ebaluazioa sartzen dira.
- h)** Irakurketaren eta idazketaren gaineko erantzukizuna arlo edo irakasgai guztiena da, erantzukizun maila eta estrategiak berberak ez badira ere kasu guztietan. Jarrera aldaketa horrek eskatzen du irakasgai guztietako irakasleek parte hartzea. Ikastetxeko irakurketa planean zehatz daiteke irakasle horien guztien lan koordinatua.



# Taula eta grafikoen aurkibidea

	Or.
1. taula	Irakurketa prozesuak eta irakurketa atazak PIRLSen .....15
2. taula	Testuen garrantzia (ehunekotan emana) PISA 2000an .....17
3. taula	Irakurketa prozesuak eta emaitzak aurkezteko azpieskalak .....18
4. taula	Irakurketa mailekin lotutako atazak.....19
5. taula	Ulermen prozesuak.....21
6. taula	Irakurketa helburuak / egoerak .....21
7. taula	Errendimenduarekin lotutako faktoreak irakurketan.....24
8. taula	Irakurketaren irakaskuntzaren bereizgarri komunak.....25
9. taula	Irakurketa atazen ereduak.....26
10. taula	Irakurketa planaren osagaiak.....28
11. taula	Ikastetxeko irakurketa plana.....29
12. taula	Jarduerak planifikatzea zikloka edo kurtsoka .....29
1. grafikoa	Marian Sainsburyk proposatutako irakurketa ereduak.....12
2. grafikoa	Testu bat ulertzeko alderdiak PISA ebaluazioan .....17



# Bibliografía aipamenak

CAMPBELL, J.R.; KELLY, D.L.; MULLIS, I.V.S.; MARTIN, M.O. & SAINSBURY, M. (2001): *Framework and specifications for PIRLS assessment 2001*. Chesnut Hill, MA: Boston College.

DEPARTMENT FOR EDUCATION AND SKILLS (2001): *Education and Skills: Delivering Results. A Strategy to 2006*. Sudbury: DfES Publications.

DEPARTMENT FOR EDUCATION AND SKILLS (2003): *Excellence and Enjoyment: a strategy for primary schools*. London: DfES.

DEPARTMENT OF EDUCATION, EMPLOYMENT AND TRAINING (2001): *Successful Interventions. Literacy Research Project*. Melbourne: Department of Education, Employment and Training.

GARCÍA MADRUGA, J.A.; MARTÍN CORDERO, J.I.; LUQUE, J.L. y SANTAMARÍA, C. (1995): *Comprensión y adquisición de conocimientos a partir de textos*. Madrid: Siglo XXI.

GARCÍA MADRUGA, J.A., ELOSÚA, M.R., GUTIÉRREZ, F., LUQUE, J.L. y GÁRATE, M. (1999): *Comprensión lectora y memoria operativa. Aspectos evolutivos e instruccionales*. Barcelona: Paidós.

LOKAN, J.; GREENWOOD, L.; & CRESSWELL, J. (2001): *How Literate are Australia's Students*. Melbourne: Australian Council for Educational Research Ltd.

MARTIN, M.O.; MULLIS, I.V.S., & KENNEDY, A.M. (2003): *PIRLS 2001 technical report*. Chesnut Hill, MA: Boston College.

MEC-INECSE (2004): *Resumen de los primeros resultados en España. Evaluación PISA 2003*. Madrid: MEC-INECSE.

MEC-INECSE (2004): *Preguntas planteadas en PISA 2000. Lectura, Matemáticas y Ciencias*. Madrid: MEC-INECSE (Formato PDF).

MONEREO FONT, C. y POZO MUNICIO, J.I. (Coord.) (2001): "Decálogo para el futuro" en *Cuadernos de Pedagogía* nº 298, pp. 49-79.

MULLIS, I.V.S.; MARTIN, M.O., KENNEDY, A.M., & FLAHERTY, C.L. (2002): *PIRLS 2001 encyclopedia: A reference guide to reading education in the countries participating in IEA's Progress in International Reading Literacy Study (PIRLS)*. Chesnut Hill, MA: Boston College.

MULLIS, I.V.S., MARTIN, M.O., GONZÁLEZ, E.J., & KENNEDY, A.M. (2003): *PIRLS 2001 international report: IEA's study of reading literacy achievement in primary schools in 35 countries*. Chesnut Hill, MA: Boston College.

MULLIS, I.V.S., MARTIN, M.O. & GONZÁLEZ, E.J. (2004): *PIRLS International Achievement in the Processes of Reading Comprehension*. Chesnut Hill, MA: Boston College.

OCDE (2000): *La medida de los conocimientos y destrezas de los alumnos. Un nuevo marco para la evaluación*. Madrid: MECD-INCE.

OCDE (2001): *La medida de los conocimientos y destrezas de los alumnos. La evaluación de la lectura, las matemáticas y las ciencias en el Proyecto PISA 2000*. Madrid: MECD-INCE.

OCDE (2002): *Conocimientos y destrezas para la vida. Primeros resultados del Proyecto PISA 2000. Resumen de resultados*. Madrid: MECD-INCE.

OCDE (2003): *Aprender para el mundo de mañana. Resumen de resultados – PISA 2003*. Madrid: MEC-INECSE.

OCDE (2004): *Marcos teóricos de PISA 2003. Conocimientos y destrezas en Matemáticas, Lectura, Ciencias y Solución de problemas*. Madrid: MEC-INECSE.

OECD (2001): *Knowledge and Skills for Life. First Results from the OECD Programme for International Student Assessment (PISA) 2000*. Paris: OECD.

OECD (2001): *Defining and Selecting key Competencies*. Paris: OECD.

OECD (2002): *Programme for International Student Assessment. Sample tasks from the PISA 2000 Assessment of Reading, Mathematical, and Scientific Literacy*. Paris: OECD.

OECD (2002): *Reading for Change. Performance and engagement across countries. Results from PISA 2000*. Paris: OECD.

OECD (2003): *The PISA 2003 Assessment Framework. Mathematics, Reading, Science and Problem Solving Knowledge and Skills*. Paris: OECD.

OECD-UNESCO (2003): *Literacy Skills for the World of Tomorrow. Further Results from PISA 2000*. Paris: OECD-UNESCO-UIS.

OFSTED (2003): *The National Literacy and Numeracy Strategies and the primary curriculum*. London: Ofsted Publications Centre.

ORGANIZACIÓN Y GESTIÓN EDUCATIVA (2002): *Nº 6. Retos educativos para la próxima década en la Unión Europea*. Bilbao: Fórum Europeo de Administradores de la Educación y CISSPRAXIS, S.A.

PAJARES, R; SANZ, A. y RICO, L. (2004): *Aproximación a un modelo de evaluación: el proyecto PISA 2000*. Madrid: MEC-INECSE.

PAJARES Box, R. (2005): *Resultados en España del estudio PISA 2000. Conocimientos y destrezas de los alumnos de 15 años*. MEC-INECSE (Formato PDF).

PRESSLEY, M. and AFFLERBACH, P. (1995): *Verbal Protocols of Reading: The Nature of Constructively Responsive Reading*. Hillsdale, NJ: Lawrence Erlbaum Associates.

SAINSBURY, M. (2004): "National and International Assessment of Literacy Skills". A paper presented at the European Summer School. Paris, March 31 2004.

SÁNCHEZ, E. (1993): *Los textos expositivos. Estrategias para mejorar su comprensión*. Madrid: Aula XXI/Santillana.

VII CIOIE (2002): *Retos educativos para la próxima década en la Unión Europea y sus implicaciones organizativas*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.